

TELEFONO-DEIA

Martin Iriberry **ikertzaile** pribatuak ohetik jaiki eta dutxa hartu zuen. Hasieran bero-bero jarri zuen ura; gero, berriz, hotz-hotza, esnatzeko eta **ajea arintzeko**. Ajea, bai. Biharamuna. Izan ere, bart gehiegi edan zuen. Aspal-diko lagun bat etorri zitzaion bisitan. Luigi deitzen zioten, nahiz eta bere benetako izena Luis izan. Edan eta edan ibili ziren. Gehiegi. Gehiegi gorputzerako. Martin **ohitu**-ta zegoen horrelako parrandetara. Bart eginikoa, ordea, gehiegi baino gehiago izan zen.

Dutxa hotzaren ostean freskoago sentitu zen, noski, eta burua argiago. Buruko mina, hala ere, ez zitzaion guztiz joan.

Kafeontzia sutegian jarri eta hozkailutik esnea atera zuen. Esnea edalontzi batera bota eta mikrouhinetara sartu zuen. Horixe egiten zuen beti, eguneroko prozesua. Bero zegoenean atera eta kafea **erantsi**. Gero, dastatu.

#

ikertzaile: «investigador/a».

ajea: biharamuna, «resaca».

arindu: pisua kendu, «aliviar».

ohitu: ohitura hartu, «acostumbrarse».

erantsi: «añadir».

—Katxis...! Ze bero dagoen! —hori ere eguneroko kontua izaten zen ia-ia, normalean gehiegi berotzen zuelako esnea. Esaera zahar bat dago: gizakia da harri **berean** birritan trabatuko den animalia bakarra. Horixe da esaera. Martinen kasuan, bera beti trabatzen zen harri berean.

Kafesnea edanda, erantzungailu automatikorantz abiatu zen. Atzo arratsaldean ez zuen entzun mezurik zegoen ala ez.

—Kaka! Mezurik ez.

Hori ere ia-ia egunerokoa zen.

Azken aldi honetan lan gutxi zeukan, bai, gutxiegi. Eta hori ez zen ona ikertzaile pribatu batentzat. Diru gutxi geratzen zitzaion, hilabete pasatzeko **ozta-ozta**. Lan egin behar zuen. Deitu behar zioten. Bestela... Nahiago zuen horretan ez pentsatu.

Martin Iriberry Bilbon bizi zen, Alde Zaharrean. Bere etxea bulegoa ere bazen. Dena batera zegoen. Ez zeukan beste aukerarik. Bulegoak alokatzea oso garestia zen, batez ere zentroan. Asko aldatu zen Bilbo lehengo **sasoi**-tatik hona.

Lan-mahaira joan zen. Bertan eseri eta **hausnarketan** hasi zen, pentsatzen. Bizitzari buruz. Lanari buruz. Berarentzat existitzen ez zen maitasunari buruz.

#

bera: «mismo/-a».

ozta-ozta: justu-justu.

sasoi: garai, denbora.

hausnarketa: pentsaketa, «reflexión».

—Guretzat ez dago ezer, maitasunik ez behintzat —atera zitzaion Martini, **ozenki**—. Gu bezalakoentzat maitasuna iragarkietako eszena bat besterik ez da, pelikula baten argumentua. Kaka!

Martin triste sentitu zen. **Goibeltasun** hori sarritan sentitzen zuen. Bere ametsa beti izan zen **maiteño** bat izatea, elkarri mimotxoak egiteko eta bizitzako gauzak konpartitzeko. Baina berak ondo zekien benetako zergatia, bene-benetako arrazoia beste bat zela: gauetan ohea hain hotz ez egotea, neguko loaldi luzeetan berotasun piska bat izatea. Arrazoi hori, agian, pertsona guztiek duten ezkutuko arrazoia da, nahiz eta **aitortu** ez.

Horri buruz pentsatzen zegoela, telefonoak jo zuen. Luigi zen.

—Nola duzu burua, gizona? —galdetu zion Luigik.

—Hala-hola. Zer duzu? Zuk orain deitzeko arrazoi bat egon behar du.

—Arrazoi bat dago, bai.

—Bota, ba!

—Begira, Martin, zergatik ez gara nire bulegoan geratzen? Badakizu non dagoen, ezta?

—Bai, noski.

—Bertan azalduko dizut dena, lasai.

—Ni oso lasai nago. Hori da nire lana, Luigi: lasai egoatea.

#

ozenki: ahotsa goratuz, «en voz alta».

goibeltasun: tristura.

maiteño: maitea, pertsona maitatua.

aitortu: «reconocer».

1

Erantzun galdera hauei:

- Non bizi da Martin Iriberry ikertzailea? Eta bulegoa non dago?
.....
- Zergatik ez dauka diru askorik Martinek?
.....
- Nor gustatzen zaio Martini? Zergatik?
.....
- Zenbat edaten du Martinek? Zergatik edaten du, zure ustez?
.....
- Zenbat pertsona hil zituen museoko hiltzaileak?
.....
- Zer iritzi du azkenean Martinek museoko hiltzaileari buruz?
.....
- Zergatik hil zituen pertsona horiek hiltzaileak?
.....

2

Konpara itzazue behean emango zaizkizuen elementuak.

Adib.: autoa / traktorea

Autoa traktorea baino azkarragoa da.

- hiria / herria

.....

- gizona / emakumea

.....

- eskultorea / pintorea

.....

- ikertzailea / polizia

.....

- aberatsa / txiroa

.....

- bulegoa / etxea

.....

- mendia / hondartza

.....